

Zorteko dago EH Bildu Nafarroan



MIKEL BASABE KORTABARRIA
IRAKASLEA

Lerrook idaztean, Nafarroako lau ko berriak akordio programatikoa hitzartu berri du. Berria da lau koa, PSN sartu eta EH Bildu aterako delako. Bi-biak batera etorri dira, gainera: sozialistek betoa jarri diete Bildukoei, haiekin berba ere ez dutela egingo ziurtatu baitute *orbe* eta, batez ere, *urbi*.

Sozialistek pentsatuko zuten, seguruenera, bazterketa absurdu horrek kalte egingo ziola ezker abertzaleari. Ez horixe. Kontrakoa: mesede galanta egin die.

Atera kontuak: betoa jarri izan ez baliote, uneotan ezker independentista 155eko alderdi sozialistarekin gobernu-ardurak negoziatzen ariko litzateke. Politika neoliberalak Hego Euskal Herri-
ra ekarri eta inposatu dituen alderdi sozialdemokrata izango zuen lehendakari. EH Bilduren koaliziokide den ERCKo buruzagiak preso eta eskubide politiko barik dauzkan alderdi sozialistaren ordezkariekin jardungo luke beharrean. Dispersioarenarekin. Eta abar.

Gauzak txarto ateraz gero, negoziatu bakarrik ez, akordioa ere adostuko luke-

Sozialistek pentsatuko
zuten, seguruenera,
bazterketa absurdu horrek
kalte egingo ziola ezker
abertzaleari. Ez horixe.
Kontrakoa: mesede
galanta egin die

te PSNk eta EH Bilduk, eta Maria Chivite izango litzateke Nafarroako presidente, hurrengo lau urteetarako. Egonkortasuna ziurtatze aldera, ezkerreko alderdi biek (itunaren ostean horrela definitu beharko genituzke, ezta?) hainbat adostasun programatiko, zenbait desadostasun tasatu... eta aurrekontuak negoziatzeko eta hitzartzeko konpromisoa sinatuko lituzkete. Imajina dezakezue desastre handiagorik? Marko neoliberalak onartuta jardungo luke Nafarroan ezker abertzaleak. Murrizketak ezaba-

tzeko ahaleaginean barik, murrizketok gutxitzeko lanean buru-belarri sartuta ariko litzateke lanean, zer eta Espainiako alderdi sozialistarekin! Eta denok dakigu sozialistekin ez dela posible, argi baitago “benetako hiruko bat dagoela, EAJk, PSEk eta PPk osatua; politika neoliberaletan eta murrizketa sozialetan bat etortzeaz gainera, haiek hitzartu” egiten dituztenak. Hiru horiekin, jakina, “ezinezkoa da aurrekontu sozialak izatea gastu-araua oinarritzat hartuta. Ezkerrak marko hau onartuz gero, murrizketen markoa ontzat ematen du, eta negoziatuko duen bakarria izango da zenbateko murrizketa egiten den”.

Ez. Askoz hobeto dago EH Bildu Nafarroan ezer negoziatzeko aukera barik. Horrela ez da markoaren barruan sartuko: egia da murrizketak ez dituela leunduko, baina ez ditu politika neoliberal eta herrien eskubideen kontrakoak babestuko. Aukera osoa izango du, pedagogia egin eta bere proposamenak lasai azaltzeko.

“Jali da garbia, ta ELAk eskaini dio krabelin gorria”. ●



Alberdi
EUSKAL ARTISAUTZA

OPARI BEREZIETARAKO
PERTSONALIZATUAK
PREZIO AUKERA DESBERDINAK

ESKAERAK
azoka.argia.eus
☎ 943 371 545